

A large group of children, many wearing orange t-shirts with the number '50' on them, are sitting on the ground around a large, multi-tiered cake. The cake is decorated with colorful flowers and fruit. The children are smiling and waving their hands. The scene is set outdoors on a paved area.

**TXIN  
PART**

**66**

**Urte  
askoan!**

# 2016

## ABENDUA

### ABENDUAK 21

Santomas Azoka, Ikastolan



# 2017

## URTARRILA OTSAILA

### ABENDUAK 24

Olentzero eta Mari Domingi Plazan



### URTARRILAK 21-22

Iraupen eskiko ikastaroa (Haurtzaro Mendi Taldea)  
Somport



### URTARRILAK 29

Pirritx, Porrotx eta  
Marimototsen ikuskizuna  
Elorso



### OTSAILAK 4

Santa Ageda



### OTSAILAK 17, 18, 19

Ihoteak  
Plaza eta auzoak



### OTSAILAK 24

Inauteriak



### OTSAILAK 26

Mendi irteera (Haurtzaro Mendi Taldea)



### APIRILAK 4

Korrika  
14:00-14:45

## AURKIBIDEA

<b>Elkarrizketa</b>	4
<b>Irakasleen formakuntza</b>	7
<b>50. urteurrena</b>	8
<b>Idazkaritzatik</b>	10
<b>KEI egitasmoa</b>	11
<b>Marka</b>	12
<b>Berrikuntzak</b>	13
<b>Gurasoak partaide</b>	14
<b>Psikomotrizitatea Haur Eskolan</b>	16
<b>Hatzak bete lan</b>	17
<b>Oiartzo</b>	32
<b>Haurtzaro Mendi Taldea</b>	33
<b>Ikasgai osagarriak</b>	34
<b>Eskuttun</b>	36
<b>Laburrak</b>	38

### ARGITARATZAILEA

Haurtzaro Ikastola  
Elorrondo, z/g - 20180 Oiartzun  
943 49 16 59  
[oiartzun@ikastola.eus](mailto:oiartzun@ikastola.eus)  
LG: SS-129/2001

DISEINUA ETA MAKETAZIOA  
BIT&MINA

INPRIMAKETA  
ANTZA

Paper birziklatuan inprimatua

Aurtengo urtea berrikuntzen eta ospakizunen urtea da Haurtzaro Ikastolan. Gure Ikastolak 50 urte bete ditu eta guztion artean ospatuko dugu, ilusioz eta berrikuntzaz josirik.

Haurtzaro Ikastola 16 familia, bi andereño (Arantxa Madariaga eta Ines Olaziregi) eta herritar askoren ekarpen eta borondateari esker sortu bazen ere, 50 urte hauetan, Oiartzungo familia askoren txikitako etxe izan da. 50 urte hauetako ibilbidea guraso guztien ekarpenei, irakasleen inplikazioari eta erakundeen laguntzari esker gauzatu da. Guztion ahalegina eta borondatea eskertzeko asmoz, aurtun, denon artean ospatuko ditugu Haurtzaro Ikastolaren 50 urteak.

50 urte horietan, Haurtzaro Ikastolak garai ilunak eta hobeak bizi izan ditu. Eduki ditu bere gorabeherak eta edukiko ditu oraindik ere, baina gaur gaurkoz, esan daiteke ilusioz, profesional-talde on batekin eta berritzen eta sortzen jarraitzeko gogoarekin heldu dela 50. urteurrenera. Esperientziak ematen duen egonkortasuna badugu, baina zorionez, ez dugu galdu hezkuntzak eskatzen duen berrikuntzetan murgiltzeko jakin-mina eta jarraitzen dugu gizartearen eskakizunetara egokitzen.

Horren lekuko dira Ikastola berritzeko egingo ditugun obrak eta, datorren ikasturteetik aurrera, Haur Hezkuntzan aplikatuko dugun eredu pedagogiko berria. Ikastolaren helburua da haurren izaerak errespetatuz etorkizuneko herritar euskaldun eta parte-hartzaileen bidelagun izatea. Makina bat oroitzapenen txokoa da, bizipen ahaztezinena, bizitzarako oinarriak jasotzeko gunea. Horixe izan da Ikastola 50 urtez gutako askorentzat, eta horixe izaten jarraitzea nahi genuke etorkizunean ere.

# Ager Iñarra eta Belen Hernandez arkitektoekin elkarrizketa



Aurten Haurtzaro Ikastolan berrikuntza bat baino gehiago izango da eta ez nolana hikoak gainera. 2016ko udan, eraikina handitu eta DBHrako gela berriak egin dira eta, horrekin batera, 'liburu-txokoa' gune berria ere sortu da. Baina hori hasiera baino ez da izan. Dena ondo bidean, 2017ko udan, eraikina barrutik guztiz aldatuko duten lan handiak egingo dira. Lan horien nondik norakoak ezagutzeko elkartu gara Ager Iñarra eta Belen Hernandez arkitektoekin.

## Haurtzaro Ikastolaren eraikina berritzeko proiektua lantzen ari zarete. Zein izan zen abiapuntua?

**Belen:** Lanketa Haur hezkuntzan hasi genuen. Ikastolako Haur Hezkuntzako espazio fisikoa hobetzeko proposamenak egiteko eskatu zitzaigun, Urmendi haur eskola eredu hartuz. Horrek Reggio Emiliako esperientzia du oinarria, bertako ezaugarriak gogoko zituzten hezitzaileek. Eraikuntza eta bere kanpoko aldea herri baten moduan planteatzen da, non plazak garrantzia berezia duen haurrak elkartzeko, harremanak errazteko. Gero kaleak eta gelak, barruko paisaia, gardentasunaren bidez haurrak eraikuntzan gertatzen den guztiaren parte dira, baita kanpoan gertatzen denaren jabe ere, espazio guztiak komunikatuta daude. Kolore neutroak, egurraren goxotasuna, natura... Hori dena pedagogiarekin lotuta dago, non esperientzia eta esperientzia errealek garrantzia berezia duten. Bestalde Ikastola konfiantzaren pedagogia txertatzeko bidean dago.

## Zein aldaketa proposatu dituzue?

**Belen:** Ikastola osoa pasillo-gela eskema tradizionala jarraituz antolatua dago, pasabide luze eta estuak ditu eta geletatik kanpo ez dago espazio amankomunik, ezta kanpoko aldearekin harreman bisualik ere.

Helburua Haur Hezkuntzarako eremu propio bat sortzea zen, haurrak modu libreagoan erabiltzeko modukoa eta pedagogia berriak ezartzeko aukera emango zukeena. Argi genuen zabalgunek behar zirela, sarrera zabalak, argitsuak...

**Ager:** Aldi berean, azken urteetan, Ikastolako fatxada gehienak berri dira, baina frontoira ematen duen fatxada berritza falta da eta hor zabalpena egiteko aukera ikusi genuen.

Horrela, Haur hezkuntzako pasabide luzeetan zeuden gune batzuk lekuz aldatzen hasi ginen, aldagelak, ikasketaburuak... Eta hor, domino efektu bat hasi zen. Gela bat lekuz mugitzeak, besteak mugitzea ekarri du, eta azkenean, Ikastolako eremu guztietarako proposamenak egin ditugu. 2016ko udan DBHko lau gela berri egin dira, ondorengo lanetan beste 'piezak' mugitu eta zabalgun horiek egin ahal izateko, hain zuzen ere.

Aukera baliatu dugu hezkuntza maila bakoitzaren beharrak kontuan hartuz, Ikastolaren antolaketa osotasunean lantzeko eta proposamen funtzional bat egiteko. Era berean, pedagogia aldetik begiratu gero, Haur Hezkuntzako aldaketak, gero Lehen Hezkuntzan eta DBHn jarraipena izango dute.

## Zein ezaugarri ditu antolaketa berriak?

**Ager:** Lanean hasi eta berehala ikusi genuen Ikastolaren "pasillo-gela" eskema gairatu behar zela, pasabideak zabaldu eta espazio berriak sortu behar genituela.

Espazio amankomun berri hauek, libreak, erabilera anitzekoak lirateke. Egun euritsu eta hotzetan jolas garaian egoteko baliagarriak, erakusketak egiteko, haurrek esperimintatzeko guneak izan daitezke... Baina gelak ere ez dira espazio itxiak izango, beirateak

erabiliko dira gelan zer gertatzen den ikusteko eta ate irristakorrak gelak komunikatzeko. Haurrak libreago mugitu daitezten eta gehiago esperimintatzeko aukera izan dezaten landu da proiektua.

Arkitekturak funtzionala izan behar du, haurren eta langileen beharrei erantzuten diena, eredu pedagogikoa aintzat hartzen duena eta, horrez gain, ederra bada, hobe.

**Belen:** Haurrek mundua bost zentzuetatik jasotzen dute eta espazioak zentzumenak garatu eta erabiltzen lagun dezake. Argi naturala funtsezkoa da, aireztapena, baita akustika ere. Adibidez, burrunba handia sortzen da espazio askotan eta hori saihestu daiteke sabai akustikoak erabiliz. Lagungarria da material naturalak erabiltzea ere. Zurarekin egiten dugu lan, asko goxatzen baitu espazioa.

## Idea bat egiteko aipatuko dizkiguzue berrikuntza batzuk?

**Belen:** Nolako espazioak sortu nahi ditugun ideia bat egiteko hor dago "liburu-txokoa": irekia, pasillotik kanpoa ikusten dela, zuraren goxotasuna duena, sabai akustikoa...

Aipatu ditugun zabalgun horietan, adibidez HHko guneetan, gurasoek ere sartu ahal izango dute, harrera-gune bezala ere funtzionatuko dute.

Gurasoek kudeatzeko gune bat ere proposatzen dugu, gaur egun Ikastolako jaia antolatzean txosna bihurtzen den gela hori.

Gune hori gurasoek kudeatuko lukete, gurasoak elkartzeko, arratsaldetan etxeko lanak egiteko aukera izateko, haur bat eskolaz kanpoko ekintza bat egiten ari denean bere zain egoteko, etab. Ikastolak landu izan du proiektu hori, baina inoiz ez da aurrera eramán.

**Ager:** DBHko lau gela berriak ere izan daitezke aipatutako ideia eta berrikuntzen adibide.

Egingo diren gela berrien artean daude, teknologia gela, laborategia, liburutegia, eskulan gela... baina berrikuntza nabarmenena aipatutako espazio amankomunetan egongo da. Pasabideak zabaldu eta irekita, egungo Ikastolak duen itxitasun sententzia desagertuko da.

## Barruko lanez gain, kanpoko patioetarako ere aldaketak proposatu dituzue.

**Ager:** Egun, ikastetxe gehienetako jolastokietan futbola da nagusi eta futboleko ibili nahi ez duten haurrek bazterretan egon behar dute, leku propio gabe. Horrela, patio eredu berria lantzen ari dira ikastetxeak, jolas aukera ezberdinak eskaintzen dituen. Ikastolak badu futbol eremu bat frontoia atzealdean, eta beraz, anfiteatroan bestelako eredu bat landu daiteke.

**Belen:** Ikas prozesuan garrantzia duen beste leku bat da patioa, esperimintatzeko edo jolas sinbolikorako gune anitzak behar dituen. Ikuskizunak eta aurkezpenak egiteko ere erabiltzen da plaza, baina oso handia izanik, plaza-jolastokia osotasunean lantzeko aukera luzatu dugu.

## Zein izan dira aurkitu dituzuen zailtasunak?

**Ager:** Aipatutako domino-efektu horretan 'piezak' mugitu eta bakoitzari bere lekua topatzea izan da zailtasun nagusia: ikasle eta irakasleen espazio eta beharrek batera, administrazioa, ikasketaburu gela, mintegiak, eskolaz kanpoko ekintzetarako lekua, bilera-gela, komunak, biltegiak, garbiketa gelak... Horiek denak kontuan hartuta garatzen ari gara proiektua.

Zailtasun horiez gain, ikastetxe bat izanik, obrak udako garaian bakarrik egin daitezke eta hori ere erronka handia izango da. Agian, lanak bitan banatu beharko dira. Eta, noski, aurrekontuak ere mugak jartzen ditu.

## Eta abantailak?

**Ager:** Gantxegik, Haurtzaro Ikastola plaza eder baten inguruan pentsatu zuen, U formako eraikin luzea egin zuen. Ez da eraikin konpaktua eta aukera eman du egokitzapenak eta zabalpen ugari egiten joateko. Forma luzeak eraginda, sarrera desberdinak egin ziren, horrela, ikastolara sartzean eta ateratzean ez da pilaketarik sortzen eta adin bakoitzak bere sarbidea du.

Esan behar da ere, Gantxegiren lanean pixka bat ezkutuan dauden elementu interesgarriak eta politak ere badaudela, eta horiei balioa eman nahi genieke, adibidez, eskailera, sarrera inguruko paretak borobilduak edo mantalak zintzilik uzteko pasilloetan dauden "kaxak".



2017ko udan egingo diren lanek Haur Hezkuntzan metodologia pedagogiko berria jartzeko aukera emango dute. Xehetasun gehiago eman dizkigu **Ixiar Lekuona, Haur Hezkuntzako ikasketaburuak.**



### Nola ari zarete lantzen Haurtzaro Ikastolaren eraikina berritzeko proiektua?

Irakasleak jabetu gara eredu pedagogiko berriak jartzeko espazioaren antolaketa berria behar dugula. Ager Iñarra eta Belen Hernandez arkitektoek, gure beharretatik abiatuta, Ikastola osoarentzat planteamendu orokorra landu dute. 2016ko udan, DBHko gela berriak egin dira eta orain, HHko eremua pentsatzeko unea da.

### Eredu pedagogiko berriak txertatzeko bidean zaretela esan duzu.

Bai, Haurtzaro Ikastolan beti egon nahi izan dugu berrikuntza pedagogikoetan eguneratuak. Irakasle talde egonkorra dugu eta guztiok gaude etengabeko formakuntzan.

Duela urte batzuk, gelan talde bakarrean lan egitetik txokoetan lan egitera pasa ginen, haurrak talde txikiagoetan banatuz.

Azken urteetan, Ikastolak haurren Haur Hezkuntzako irteera profila definitzen ari gara. Zein gaitasun eta ezagutza eduki behar ditu haurrak bost urterekin? Galdera horri erantzunda, jabetu gara interesgarria dela haurrekin bestelako lanketa bat egitea. Horretarako, beharrezkoa da irakaslearen rola eta espazioaren antolaketa aldatzea. Pausu horiek emateko prestatzen ari gara Ikastola barruko eta kanpoko formakuntzarekin.

### Emango zenizkiguke xehetasun gehiago?

Oinarria da haurrak ematen dituela pausuak eta hezitzaileak bideratzaile funtzioa duela. Horretarako, espazio desberdinak eskainiko dizkiogu haurrari eta bera joango da probatuz aurrera egiten. Haurren jakin-mina oso handia da eta horrek eramango du gauzak probatzera, ikastera. Irakasleak lagunduko du bere bidean eta gonbidatuko du pausu berriak ematera, baina beti bere erritmoak eta nahiak errespetatuz. Hor gurasoa ere oso garrantzitsua da.

### Zein ikastarotan hartu duzue parte?

Konfiantzaren pedagogiari buruzko ikastaroetan ibili gara eta, praktikan hori nola gauzatzen den ikusteko, beste Ikastola batzuetara bisitak egin ditugu. Montessori ikastaro batean ere egon ginen eta, hartan, materialari buruzko hainbat azalpen jaso genituen.

Bestetik, aipatu nahi nuke aldaketa horien oinarria Ikastolen Federazioa burutzen ari den lanketa bera dela. Haur Hezkuntzako markoa sortzen ari gara eta Urtxintxako materialaren erabileraren inguruan ere ausnartzen ari gara. Lanketa oso interesgarria izan da. Markoa ez digu pedagogo batek eman. Guk eraiki behar izan dugu nolako Ikastola nahi dugun, nolako hezkuntza nahi dugun. Oinarri bat da, eta hortik abiatuta Ikastola bakoitzak bere bidea egingo du.

### Itzul gaitezen espazioaren antolaketara. Pedagogia eredu berriak gaur egun ez dauden espazioak eskatzen ditu.

Haurra laguntzeko bide horretan, espazioak zerikusi handia du. Haurra aske sentitu behar da, baina horretarako irakasleak ere lasai egon behar du eta haurra seguru dagoela ikusi behar du. Gaur egun, ezin ditugu haurrak pasilloetan bakarrik utzi zeren gelatik ez da pasilloa ikusten. Gelak oso itxiak dira eta aukera gutxi ematen digute joan-etorrietarako. Espazio irekiak eta seguruak behar ditugu, haurraren garapenean lagunduko dutenak.

### Gela barruan ez ezik, jolas-tokiak berritzea ere aurreikusten da.

Eredu pedagogiko berriak kanpoko espazioaren antolaketari eta erabilerari ere garrantzia handia ematen dio. Kanpora ateratzean haurrak ikasten jarraitzen du, esploratzen eta esperimintatzen. Haurraren beharretara egokitzeak jolas-tokiak beste era batera antolatu behar ditugu eta baliabide desberdinak eskaini, adibidez, naturarekin kontaktu gehiago.

# KiVa ikastola gara!

KiVa Ikastolako komunitate osoarentzako eskola jazarpenaren aurkako programa da. Funts teoriko sendoa du KiVak, izan ere, Finlandiako Turku Unibertsitate prestigiotsuko ikerlari talde batek hamarkadatan egindako lana du oinarri.

Urtariletik aurrera KiVa programa lantzen hasiko dira LHko ikasleak nagusiki, baina programaren oinarrian dagoen ideia ez da LHn geratzen eta DBHra ere luzatu nahi dugu. Programak ikastolako langile, ikasle eta gurasoak hartzen ditu bere baitan eta lanketarako material ugari du, honakoak besteak beste: irakasleen gidaliburuak, bideoak, on-line jokoak, ikasleen KiVa galdetegiak, posterrak, txalekoak eta gurasoen gida.

Gurasoen inplikazioa handia da proiektu honetan, seme-alabak ondo ezagutzen dituztenez, azkar suma dezakete haur edo nerabearengan aldaketaren bat gertatzen ari dela, eta horren aurrean nola jokatu eta zer egin azaltzen zaie proiektu honetan.

### Prebentzioa, esku-hartzea eta jarraipena

KiVa hiru esparrutan lantzen da: prebentzioa, esku-hartzea eta jarraipena.

**Prebentzio** lana gelako saioetan egingo da. Hamabostean behin ordu bateko KiVa saioa egingo dute ikasleek. Ikasturtean zehar hamar ikasgai landuko dituzte ikasleek eta ikasgai bakoitza bukatzean arau bat adostuko dute eta gelan ikusgarri jarriko da. KiVa saioetan hainbat ariketa eta jarduera proposatzen dira, ondorengoak adibidez: ikasleei erakusten zaie nola izan aktibo eta nola egin aurre eskola jazarpen baten aurrean, edota nola lagundu jazarpena



jasaten ari den bati. Ikasgai horiek on-line joko batzuekin lotuta daude; haien bitartez beren abileziak trebatu eta gehiago ikas dezakete. Prebentzioaren xedea da ikasleengan eragitea, jazarpen egoera isiltasunaren bitartez onartu edota bultzatu beharrean, biktimen alde jartzea eta adieraztea ez dutela onartzen inor jazarzea.

Prebentzioa funtsezkoa da, baina jazarpen egoera bat dagoenean oso garrantzitsua da **esku-hartzea** egokia izatea. Jazarpen egoera bat gertatzean KiVa taldeak esku hartuko du. KiVa taldearen helburua da jazarpena lehenbailehen gelditzea. Horretarako, jazarpenean zuzeneko parte hartzea izan duten haur eta nerabeekin bakarkako bilerak egiten ditu KiVa taldeak, beste ikasleak biktimari babesa ematera animatzen ditu eta jazarpena gelditzeko eman beharreko urratsak bideratzen ditu.

KiVaren hirugarren alderdi garrantzitsua **jarraipena** egitea da; uneko egoera

identifikatzea eta denborarekin gerta daitezkeen aldaketez jabetzea. On-line dauden baliabideen bidez, Finlandiako Turku unibertsitatetik egingo da Haurtzaro Ikastolaren jarraipena eta, urtero, ikastolaren egoeraren inguruko feedbacka emango du.

### Prestakuntza

KiVaren bitartez, ikastolako komunitate osoak hartuko du parte eskola jazarpenari aurre egiten (irakasle, ikasle, guraso, jantokiko langileek...), helburu jakin batekin: ikasle guztiak salbu sentitzea eta haien ongizatea bermatzea. Horretarako, prestakuntza jasoko dute denek. LHko irakasleek azaroan egin dituzte prestakuntza saioak eta gainontzeko langile eta gurasoek hurrengo hilabeteetan jasoko dute informazioa; norberak bere esparruan zer egin behar duen eta jazarpen egoerak nola bideratu behar diren ezagutzeko. Horrekin, eskola jazarpenari erantzun bakarra eman nahi zaio ikastolan, erantzun bateratua.

# Urte askoan Hurtzaro Ikastola!



Aurten 50. promozioa! Osasunez ongi, esperientziaz lepo eta berrikuntzez jantzirik ospatuko dugu guztion artean Hurtzaro Ikastolaren 50. urteurrena.



**1967ko urriaren 16an** Arantxa Madariaga eta Ines Olaziregi andereñoek 16 familietako neska-mutikoak beren gela berrietan sartzen ikusi zituztenean bizi izandako ilusioa eta itxaropena ez zen nolanhikoa izango. Zein baino zein apainago gelan sartu, hasierako lotsak alde batera utzi eta zulutxo batetik ikustekoak izango ziren hango jolasak, ikasteko grinak, barreak eta goxotasuna.

Ilusioak ilusio, garai hartan inor gutxi pentsatuko zuen lehen pauso garrantzitsu bezain xumeak halako fruitu ederra emango zuenik. 50 urte hauetan, Hurtzaro Oiartzuneko familia askoren bigarren etxe izan da. Haurrak Ikastolara ekarri dituzten gurasoek ongi dakite Ikastola herritik sortutako ekimena dela, kooperatiba dela, eta horrelako egitasmo sendo bat sortu eta egonkortzeko guztion ahalegina ezinbestekoa dela. Guztion borondatea eta inplikazioa eskertzeko asmoz, aurten, denon artean ospatuko ditugu Hurtzaro Ikastolaren 50 urteak.

## Ireki oroitzenen kutxak

Ikastolako urteak bizitzako lehen urteak dira, lehen harremanak, barreak, haserreak, jolasak... Bizitzako lehen esperientzia ahaztezin lekuko da Ikastola, oroitzenen hunkigarritz betetako kutxa bat.

Aurten, ikasle, guraso eta langile ohien bizipenen eta ametsen oroitzenen kutxak zabaldu nahi genituzke. Izan ere, jakin badakigu txikitako lagunekin elkartzean sarritan kontatzen diren hamarnaka pasarte daudela: barregarriak, serioak, hunkigarriak, tristeak... Bakoitzak bere bizipenak izango ditu, guztiak desberdinak, baina guztiak oso pertsonalak. Hurtzaro Ikastolaren 50 urteko ibilbidean zehar ez ezik, emozioetan barrena bidaiatzeko aukera ere bada oroitzenen kutxa horiek zabalteaz.

Hurtzaro Ikastolaren 50. urteurrena guztion artean ospatzeko antolatuko ditugun ekintzak aitzakia bat gehiago izango dira Ikastolako lagun zaharrek eta irakasleekin une zahar horiek elkarbanatzeko, bizitakoa harrotasunez gogoratzeko.

Bestalde, Facebook-en ikasle ohien taldea ere sortu da, Oiartzunen bizi ez diren edo gaur egun Hurtzaro Ikastolara maiz hurbiltzen ez diren lagun zaharrak bertan topatzeko eta oroitzenen partekatzeke.

## Ikasturtean zehar hiru garai nagusi

50. urteurrena ospatzeko ekitaldiak urte osoan zehar izango dira, baina hiru garai nagusi nabarmenduko dira. Ikasturte hasieran, atek ireki ziren lehen eguna gogoratzeko, urriaren 16an kalejira eta urriaren 23an familia-giroko jaialdia ospatu ziren.

Bigarren hitzordu nagusia abenduaren 3an, Euskararen Egunean izan genuen. Egun horretan, Ikastolako lehen gelak izan ziren eraikuntzan, gaur egun Hurtzaro Tiki dagoen lekuan, plaka bat jarri zen eta Ikastolako dantzari, bertsolari eta abesbatza- ren laguntzarekin ekitaldi polita izan genuen. Datozen egunetan, berriz, Santomasak ospatu eta Eguberri kantari aterako gara. Bi egun horietan, 50. urteurreneko zapia soinean eramango dugu Ikastolako kide guztiok.

Eta, udaberrian, Korrika eta Inauteriak modu berezian ospatu ostean, Hurtzaro Ikastolarekin nolabaiteko lotura izan duten guzti- guztientzat jaialdi berezia antolatuko dugu. Festa berezia izango da, Hurtzaro Ikastolaren ibilbidean gogoan geratuko den horietakoa. Oraindik goiz da festa horren egitaraua zehatz-mehatz jakinarazteko, baina data erreserbatu dezakezue: maiatzaren 6a, larunbata. Ikasle ohi askoren parte hartzea, une hunkigarriak eta jai-giro aparta sortzea dira jaiaren antolakuntzarako irizpide nagusiak.

## Oroitzenen liburua

Ezinezkoa litzateke 50 urtetan Hurtzaro Ikastolatik pasa diren haur, irakasle eta langile guztien oroitzenen liburua bakar batean jasotzea, baina lagin interesgarri bat hari polita da Ikastolaren 50 urteko ibilbidea laburbiltzeko. Promozio bakoitzeko ordezkariak eta Ikastolako komunitatea osatzen duten kide desberdinei egingo zaizkie elkarrizketak, eta hartara, Hurtzaro Ikastolaren nortasuna, bertan egindako lan esker eta urteetako ilusioa jasota geratuko dira.



# Elkartasunezko kuotak eta laguntza pertsonalizatuak

Haurtzaro Ikastola kooperatiba bat da, ikasle, irakasle eta gurasoek osatzen dutena. Guztira 879 ikasle daude eta ikasle bakoitzeko Hezkuntza Sailak urteko diru-laguntza ematen dio Ikastolari. Hala ere, jakina da laguntza hori ez dela nahikoa Ikastolaren funtzionamendu-gastuetarako, eta horregatik, hileroko kuota bat kobratzen zaie gurasoei.

Gurasoen artean egin berri den galdeketa arabera, Ikastolako matrikulazio-kuota ez da erabakiorra haurra zein ikastetxetan matrikulatu erabakitzeke orduan. Hala ere, Ikastola jabetzen da familia batzuentzat Ikastolako kuota ordaintzeak ahalegin berezia eskatzen duela, eta horregatik, "Ikastolak familia bakoitzaren egoera aztertu behar du eta kuota ordaintzeko izan ditzaketen zailtasunen aurrean laguntza eskaini." Agustín Vital Ikastolako Idazkariaren arabera, "Ikastolaren filosofia orokorra da kuotak elkartasunezkoa izan behar duela eta laguntzak pertsonalizatuak. Ahal dugun neurrian saihestu behar dugu haurrak egoera ekonomiko kaxkarraren ondorioak jasatea."

## Kuota finkoa, hilabetero berdin ordaintzeko

Ikastolako kuota ondorengo atalek osatzen dute: hileko kuota osagarria, jangela-kuota, garraio-kuota eta IKTei dagokien kuota.

Kuota-osagarria haurraren adinaren eta senide-kopuruaren arabera aldatzen da eta jangela-kuota ikaslearen erabileraren arabera. Gogoratu, ikaslea gaixotzean goizeko 10:00ak baino lehen deituz gero, egun horretako otordua ez dela kobratzen. Garraio-kuotari dagokionez, azpimarratzekoa da "kuota solidarioa" izan nahi duela. Kasu horretan ere haurraren erabileraren arabera ordaintzen da, baina jakin behar da zerbitzu hori guztiz defizitarioa dela. Oihartzun auzoz osatutako herria izanik, Haurtzaro Ikastolak auzo guztien arteko elkartasunean oinarritu izan du garraio-kuota. Helburua da auzoetan bizi diren familientzat garraioa gainkostu handiegia ez izatea.

IKTei dagokien kuota uztailean eta abuztuan kobratzen da eta Ikastolako bazkide guztiek ordaintzen dute, alegia, familiek eta langileek. Kuota horrekin Ikastolak IKTeetan dituen gastuak ordaintzen dira, hala nola, arbel digitalak, DBHko ikasleen Cromebook-ak, informatika gela, etab.

## Hezkuntza Sailaren beka eta Ikastolaren laguntzak

Ikasturte hasieran, Haurtzaro Ikastolako idazkaritzatik bideratzen dira Hezkuntza Sailari egiten zaizkion beka-eskaerak. Agustín Vitalen hitzetan "Haurtzaro Ikastolak kudeaketa oso zorrotza egiten du eta animatzen ditu gurasoak eskaera egitera. 2016-2017 urtean, Hezkuntza Sailari 330 beka-eskaera inguru egin zaizkio."

Hezkuntza Sailak otsaila aldera eman ohi ditu beka. Familia batzuek zuzenean kobratzen dute beka, otsailean. Beste familia batzuek, aldiz, Ikastolaren laguntzari esker, urteko kuota guztietan banatzen dute laguntza, irailetik hasita. Nolabait esateko, Ikastolak aurreratzen du otsailean jasoko duten diru-laguntzaren zati bat eta, hartara, familia horiek ez dute otsaila arte itxaron behar izaten. Kasu horietan, Ikastolak berak kobratzen du Hezkuntza Saileko beka, otsailean.

Hezkuntza Saileko bekez gain, egoera ekonomiko zailean dauden familientzat laguntza-sistema propioa du Ikastolak. Agustín Vital-en hitzetan, "kontuan izaten dugu egoera txarrak iragankorrak direla, pasa egiten direla, eta familia bakoitzari modu pertsonalizatuan laguntzen dio Ikastolak." Ikastolako laguntza jasotzeko, ezinbestean Hezkuntza Saileko eskaera egina eduki behar du familiak eta Hezkuntza Saileko baremoak kontuan hartuta egiten dira kuota-murrizketak. Errenta-maila oso baxua den kasuetan, Ikastolak kuota sinbolikoa jartzen du. Azkenik, badaude egoera berezi batzuk Udaleko Gizarte Ongizatekoekin lantzen direnak. Kasu horietan ere laguntza pertsonalizatua eskaintzen da.

# KEI, Ikastola modu eraginkorrean kudeatzeko

2010-11 ikasturteko Ohiko Batzar Nagusian aurkeztu zen KEI egitasmoa.

Haurtzaro Ikastola prozesuen eta pertsonen lanaren hobekuntzan oinarritutako erakunde bihurtzeko egitasmoa da KEI.

Ikastolako Plan Estrategikoan jasota dago ikastola modu eraginkorrean kudeatzeko bidea aztertu behar dela. Zeregin horretarako, Kontseilu Errektoreak KEI egitasmoa garatzea erabaki zuen.

Horrela genion momentu hartan:

*"Garbi izan dugu, baina ere, ikastetxearen hobekuntzarako ezinbestekoa dela hezkuntzan funtsezkoak diren prozesuak identifikatzea eta planifikatzea, eta are garrantzitsuagoa dela planifikatu den lan horren ebaluazioa egitea, ebaluazio horri esker hobetuko baitugu."*

*Haurtzaro Ikastola prozesuen eta pertsonen lanaren hobekuntzan oinarritutako erakunde bihurtu nahi dugu eta, horretarako, hainbat ikastolatan garatzen ari garen tresna gure egitea erabaki dugu; hots, Kalitate Egitasmo Integratua."*

Kalitate eredu honetan printzipio hauek jasotzen dira:

- Pertsonen gogobetetasuna lortzea
- Hezkuntzako jarduera guztiak ikasleei zuzentzea, pertsona diren aldetik
- Inplikazioa sustatzea
- Aitzindariak partekatua bultzatzea, eskolaren hobekuntzarekin konprometitua
- Ebaluazioa egitea
- Eraginkortasunari eta emaitzei garrantzia ematea

KEIren ezarpenak zortzi fase ditu: informazioa eta komunikazioa, kalitatearekiko konpromisoa, ebaluazioa eta diagnostikoa, hobekuntza taldeen proiektuen diseinua, proiektuen hedapena edo ezarpena, estandarren bilaketa, kanpoko auditorietza enpresek lagunduta, eguneratzea eta kreditatzea.

2010ean, lehen faseari ekin genion ikastolan eta lanketa horiek egiteko egitura bat sortu zen. Zuzendaria izan da prozesua gidatu duena eta, ikasturte honetan kreditazioa lortzeko auditoria eskaera luzatu dugu.

## Kreditazioak zer adierazten du?

Egitasmo honekin lanean ari garen ikastolak ziurtatzen duguna zera da:

- Hausnarketa ekintzaren bidez irakats-jarduna hobetzen dugula.
- Arrakastarako funtsezko prozesuak zehaztuak daudela eta estrategikoki planifikatzen ditugula.
- Ikastolako langile guztien artean kohesioa lantzen dugula, eginkizunari, ikuspegiari eta balioei dagokienez.
- Nork bere gaitasun eta balio profesionalak hein handiagoan aintzatesten dituela.
- Ikastolako ideien, hezkuntza proiektuaren eta eguneroko irakats-jardunaren artean adostasun maila handiagoa dagoela.
- Pertsonengan antzemandako premia eta itxaropenei erantzun profesionalagoa (egokia eta zehatza) ematen zaiola.
- Epe labur eta ertainean ikastolaren ospea handitzen dela.
- Familien gogobetetasun handiagoa lortzen dela, ikastolako langileak kalitateaz eta ikasleen hobekuntzaz arduratzen direla ikusita.
- Ikastolako familien inplikazio handiagoa lortzen da, haien seme-alaben hezkuntzan eta irakaskuntzan parte hartzeko.

Sei urtetako bide luzea egin ondoren, garbi ikusten dugu kooperatibaren etorkizuneko erronkei eraginkortasunez aurre egiteko tresna dela KEI egitasmoa. Bidean asko ikasten ari gara, sinesten dugu horretan eta ahalegin guztiak egingo ditugu Haurtzaro Ikastola prozesuen eta pertsonen lanaren hobekuntzan oinarritutako erakunde bihurtzeko.

Bukatzeko, aipatu behar dugu zeregin honetan Euskal Herriko Ikastolak elkarte Juanjo Gomezekin hasi ginela eta, gaur egun, lan horretan dabilen Xabier Amilibiaren gidaritzapean ari gara bideratzen. Gure eskerrik handiena beraiei biei eman duguten laguntzarengatik.



# Haurtzaro Ikastola

## bizitzarako hezkuntza

## Marka berria Ikastolarentzat

Haurtzaro Ikastolak 50 urte betetzen dituen ikasturtea urte aproposa da orain arteko ibilbidea gogoratu eta etorkizunera begira egin beharreko bidea zehazteko. Ibilbidea emankorra eta ederra izan da orain arte, eta horrela izaten jarrai dezan, marka eta komunikazioa hobetu nahi ditu Ikastolak.

Haurtzaro Ikastola hiru lerroko ikastola handia eta egonkorra da. Eskaintza akademiko osoa (0-16urte) eta berritzailea, lan-talde profesional oso inplikatu eta egoera ekonomiko egonkorra ditu. Haurtzaro Ikastolaren beste ezaugarri bat bere komunitatearen izaera aktiboa da; irakasleak, langileak, gurasoak eta ikasleak, guztiak egiten dute ospakizunetan eta Ikastolaren aldeko ekintzetan. Horren erakusle izan zen, adibidez, Ikastolaren 50. urteurrena ospatzeko urrian egindako jaietan sortutako giro ederra.

Une oparo hau baliatu nahi du Ikastolak gaur egun duen komunikazio partzelatua eta ez sistematikoa hobetzeko eta, nolabait, garai berri bat abiatzeko. Ikastolak sortuak ditu komunikaziorako tresna egokiak, hala nola, Txinpart!, sare sozialak, webgunea eta buletina, baina marka garbi eta esanguratsu bat eta komunikazio-plan bat falta zaizkio egiten duen lan guztia modu koherentean azaldu eta helarazteko.

### Zer da Haurtzaro Ikastola?

Haurtzaro Ikastolaren ezaugarriak definitzeko, irakasle, langile eta guraso artean galdeketa bat egin da, norberak Ikastolarekiko zer sentitzen duen eta nola bizi duen jakiteko. Lagin horretatik abiatuta, honela definienezake Haurtzaro

Ikastola: "Haurtzaro Ikastola **euskara eta euskal kulturaren** oinarritutako kalitatezko hezkuntza izateaz gain, **herriari oso loturik** dagoen egitasmoa da. Hezkuntza eragile aktiboa da, **ikaslea erdigunean** duen **komunitate sendo** batek osatzen duena eta etorkizuneko gizarte parekide eta euskalduna sortzeko lanean ari dena."

Helburu horiek lortzeko Ikastolak eskaintza zabala eta osoa du, baita urteetako lanari esker, nolabait Ikastolaren zigu bihurtu den lan egiteko modu bat ere. Ikaslea bere osotasunean ikusten da eta bere garapenean bidelagun izango dituen irakasle eta hezitzaileak topatuko ditu Ikastolan. Jakintza curricularra jasoko du, baina hori bezain garrantzitsua da bizitzan behar-beharrezkoak izango dituen hainbat abilezia lantzeko eta baloreak bereganatzeko aukerak eskaintzea. Horregatik dira garrantzitsuak eskolaz kanpoko ekintzak, Agenda 21, Eskuttun, irteerak, prosa eta poesia lehiaketa, jaiak eta ospakizunak... eta bestelako zeregin ez curricularrak.

Ikastolan jasotakoa emaitza akademi-koetatik askoz haratago doa: lagunak, bizipenak, euskara, aurkikuntzak, jolasak, ospakizunak, emozioak... horiek guztiak dira Ikastolako haurren oroitzapenen kutxak betetzen dituztenak eta Ikastolako eskaintza berezi egiten dutenak. Horregatik da "Haurtzaro Ikastola, Bizitzarako Hezkuntza".



## LIBURU-TXOKOA martxan

Gure ikastolak merezi eta behar zuen horrelako txoko atsegina eta goxo bat, ikasleak liburuaren bueltan elkartzeko eta liburuak gozatzeko. Aspalditik zegoen gure gogoan proiektu tiki hau, baina beti aurrea hartzen zion beste presazko beharren batek.

Baina, azkenean, heldu da gure **Liburu-txokoa** martxan jartzeko eguna. Urtarrilean irekiko ditugu bertako ateak, ikastolako ikasle tikiak estreina ditzaten bertako eserleku, liburu, apal, mahai eta txoko guztiak.

Mimo eta maitasun handiz egin dugun txokoa da, batez ere ikasleengan irakurzaletasuna pizteko asmo bakarrarekin. Gaur egun liburuak, eta oro har, irakurketak nahiko ibilbide zaila dauka, ikasle tiki hauek bidean beste goxoki erakargarri asko dituztelako, gehienak teknologia berrien mundukoak.

Horregatik, gero eta zailagoa egiten zaigu gure ikasleak irakurketaren inguruan motibatzea. Espero dugu gure **Liburu**

**txoko** berri eta eder honek lagunduko digula langintza horretan. Ttikatik erakusten badiegu gure ikasleei liburuak dituen aurpegi eder eta polit guztiak, eta ondorioz, liburuak gozaten, biharko irakurleak sortzen ari gara.

Astean behingo bisita izango dute ikasleek beren irakaslearekin **Liburu txokora**. Eta bertan hainbat eta hainbat ekintza egingo dituzte irakurketaren inguruan. Hala nola irakurketa isila, ozena, liburu aurkezpenak, trukaketak, ipuin kontaketa, poesia errezitaldiak, idazleei elkarrizketak...

Aurrerantzean, esperientziak hala erakusten badu, gurasoentzat ere izan liteke txoko polita, beren seme-alaba tikiak irakurzaletasunaren bidean abiatzeko.

Ongi etorria, beraz, Liburu-txokoa, gure ikastolara. Eta ongi etorriak, guztiok, gure **Liburu txokora**.

Antton Kazabon

# Atzerritar gurasoengandik ikasten

Nolako hezkuntza-sistema dago beste herrialdeetan? Urrutirago joan gabe, ikastolan bertan aurkitu dugu atzerriko hezkuntza-sistema batzuk hurbilagoetik ezagutzeko aukera. Beren haurrak Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan dituzten ikastolako hiru guraso atzerritarrekin elkartu gara: Juan Martinez katalana, Kerstin Ellenrieder alemaniarra eta Karen Perry estatubatuarra. Hona hemen, puntu-puntu aurkitu ditugun desberdintasunak eta antzekotasunak.



## Hezkuntza-sistema guztiz desberdina Alemanian

Haur Hezkuntzari dagokionez, Alemanian errealitatea oso bestelakoa da. Hasteko, 0-3 urte bitarteko haurrentzat haurtzaindegi pribatuak baizik ez daude eta oso garestiak dira. Haur Hezkuntzako urteei dagokionez, Alemanian, gelako ikasle-kopurua askoz baxuagoa da: "20-25 ikaslerekin bi begirale egoten dira. Gainera, 3-6 urteetako haurrak nahastuta egoten dira gelan. 6 urteko haurrei 3 urteko erakusteko ardura ematen zaie eta horrek 6 urteko konfiantza areagotzen du."

Alemanian hezkuntza-sistemaren desberdintasunak ez dira hor amaitzen. Oinarrizko hezkuntza deitzen dena 6-10 urte bitartekoa da eta haurrek goizez bakarrik izaten dituzte klaseak, 12:00ak arte. Gaur egun, bi gurasoek etxetik kanpora egiten dutenez lana, jangela eta eskolaz kanpoko ekintzak egoten dira arratsaldeetan. 10 urterekin, haurrak hiru lerrotan banatzen dira. Lerro bat orokorra da, 10-15 urte bitarteko haurrentzat. Bigarren lerroa 16 urte artekoa da eta formazio praktikoa ere eskaintzen da, enpresetan praktikak eginez. Hirugarren lerroa unibertsitateko prestatzen duena da. Haurrek, hobe esan, gurasoek aukeratzen dute nahi duten lerroa beraien gaitasun eta gogoen arabera. Aukeraketa 10 urterekin egin arren, gero, lerro batetik bestera alda daitezke. Kerstin alemaniarra, egiten zaion kritikarik handiena da haurrak 10 urterekin 'saillatzen' direla, baina aldi berean, oso zaila egiten zaio ulertzea

DBHko irakasleek nola lortzen duten hain maila eta motibazio desberdinak dituzten haurrak gela berean kudeatzea.

## Eskola berdeak, Katalunian

Juanik Kataluniako "eskola berdeen" esperientzia kontatu digu urte batzuetan bere semea Eskola Berde batean eduki baitzuen. "3-12 urte bitarteko haurrak zeuden eta lerro bakarreko eskola zen, Haurtzaro Ikastola baino askoz txikiagoa, noski. Irakasleak beraien artean elkar laguntzera bideratzen ziren, LH2koek LH4koek 'los padrins' esaten diete eta, une jakin batzuetan, Inauterietan jantzeko edo abastera ateratzen direnetan, beraien laguntzaile izaten dira."

## Estatu Batuetan 5 urte arte eskolarik ez

Estatu Batuetan, Alemanian bezala, ez dago haur eskolarik. Karenek esan digunez, "eskola 5 urterekin hasten da. Ordura arte, haurtzaindegi pribatuak daude, baina oso-oso garestiak dira." Zentzu horretan, Karenek asko eskertzen du Oizartzungo Partzuergoaren eskaintza. Ikasle-ratioari dagokionez, Alemanian bezala, bi irakasle egoten dira 20-25 haurrentzako. "Nire amak haur txikiak egiten du lan eta beti esaten dit ea nola egiten duten hemengo irakasleek hainbeste haurrekin!" Haur Hezkuntzaren ondoren, "5-12 urte bitarte Lehen Hezkuntza izaten da, eta gero 13-18 urte bitarteko haurrak daude."

## Oporrak maizago Alemanian eta gutxiago Estatu Batuetan

Alemanian oporrak oso bestela banatzen dira ikasturtean zehar. Udakoak laburragoak dira, baina ikasturtean zehar, atsedentarte gehiago izaten dituzte ikasleek eta irakasleek. Zazpi aste klase edukita, bi asteko oporraldia izaten dute, gutxi gorabehera. Hau da, urri amaiera aldera, gabonetan, Inauterietan, Aste Santuan eta maiatza amaieran bina asteko oporraldia. Hori bai, udako oporrak uztaila erdialdetik irailaren 1era izaten dira, sei aste guttira.

Estatu Batuetan, aldiz, askoz opor gutxiago izaten dutela esan digu Karenek. Hemen bezala izaten dira, baina Aste Santuan egun gutxiagorekin. "Egia esan, atsedent gutxi izaten dute haurrek ikasturtean zehar." Juanik ere horrela aipatu digu, "Katalunian Aste Santuan aste bakarra izaten dute jai, eta noski, ekainerako lehen eginda iristen dira haurrak. Gainera, udako oporrak oso luzeak izaten dira."

## Ze ongi Haurtzaron sukaldari propioa dagoela!

Sukaldari propioa edukitzea oso ongi baloratu dute hiru guraso atzerritarrek.

Juanik bere esperientzia kontatu digu: "guk lortu genuen sukaldari propioa edukitzea eta, gainera, lekariak eta barazkiak

ekologikoak ziren. Noski, horrek eragin zuzena zuen prezioan eta oreka aurkitzen saiatu ginen ekologikoaren eta prezioaren artean. Bestetik, jangela emozioak eta zentzumen guztiak lantzen dituzte jatekoaren bitartez, dastamena eta usaimenaz gain, ukimena, ikusmena eta entzumena ere bai. Zentzu horretan, badakit garai batean musikarekin ere egin zutela esperientzia piloturen bat."

Karenek oso ongi baloratzen du bertako sukaldaria egotea. "Pentsa, Estatu Batuetan patata frijituak jateari barazkiak jatea esaten diote"

Kerstin iritzi jangela da Haurtzaro Ikastolako zerbitzu bereizgarrietakoa.

## Irakasleak eta langileak

Hiru gurasoek oso ongi baloratzen dute Haurtzaro Ikastolako irakasle eta langile-taldea. Juaniren iritzi, "hemen 0-16 ibilbide osoa eskaintzeari ondo deritzot. Gainera, oso irakasle ona dugu eta oso gustura gaude. Nire haurrak behar bereziak ditu eta laguntzaile eta Ikastolako psikologoaren lana asko eskertzen dut. Irakasle oso gertukoak direla iruditzen zait." Kerstin iritzi, "guztiak oso hurbileko tratua dute, haurrak goxotasun handiarekin zaintzen dituzte, oso abegikorrek dira. Eskolaz kanpoko ekintzetan ere, ikusten dut nola hezitzaile denek beren izenez deitzen dituzten haur guztiak."



# Psikomotrizitatea Haur Eskolan

**Begoña Rezola**

Urmendi Haur Eskolako Hezitzailea

## Urmendi Haur Eskolako

ttikiek, katuka hasi orduko, psikomotrizitate saioak egiten dituzte astero.

Psikomotrizitate-gela leku dinamikoa da, adin bakoitzak dituen ezaugarri eta beharrei egokitzen dena.

Hiru espazio bereizten dira bertan:

- 1. Espazio sensoriomotorra:** koltxonetak, txirristak, goma-espumazko bloke desberdinak espalderak... osatzen dute. Mugimendu jolasak ahalbidetzeko antolatzen da eta jolas hauen bidez, haurrek emozioa askatzen dute, gozamenaz bizitzen dutelarik mugimendua eta gorputza.
- 2. Espazio sinbolikoa:** Jolas sinbolikoa errazten duen materiala izaten da bertan: oihalak, pilotak, panpinak... Jolas horien bidez, haurrak munduaren errepresentazioa egiten du, ezagutu eta menperatu nahian.
- 3. Eraikuntzen lekua:** Egurrezko piezak, margoak, plastilina izaten dira espazio horretan.

Haur ttikienekin egiten den lanketa nagusia espazio sensoriomotorrekoa da. Ertainetan sinbolismoaren aurreko jolasak agertzen hasten dira. Bi urteko geletan, berriz, jolas sinbolikoaren bidea hartzen dute eta eraikitzen ere hasten dira askotan.

Hurrengo etapetan (haurrak zortzi-bederatzi urte bete bitarte egiten dira saioak Haurtzaro Ikastolan), mugimendu jolasak landuak eta kontrolatuak dira, jolas sinbolikoak benetako antzerkiak bihur daitezke eta eraikuntza konplexuak osatzeko gai izaten dira.



## Haur bakoitzak bere garapena

Saioa hasi eta amaitu erritual batekin egiten da. Bi une horiek komunikazio-uneak izaten dira eta haurrei bi arau baino ez zaizkie gogorarazten: minik egin gabe eta minik hartu gabe ibili.

Psikomotrizitate-gelako jolasa ez da bideratua, berezkoa eta espontaneo baizik. Psikomotrizistaren lana da haur bakoitzaren espresioa, erritmoa eta izate berezia jaso eta modu pertsonalizatuan erantzutea, haurrak, dagoen une eta egoeratik abiatuz, aurrera egin dezan.

Saio horien **helburuak** hauek dira:

- Psikomotrizitate saioak globalitatearen ideiatik abiatzen dira.
- Adin horietan erlazio estua dago funtzio neurologiko eta psikikoen artean. Pertzepzio sensorialen bidez, mugimendua eta ekintzaren bidez sortzen da pentsamendua.
- Sensorialki biziutakoa soilik barneratzen da ikaste-prozesuan.
- Gorputza komunikazio tresna da, harremanetarako, sozializatze, ikasteko.

Psikomotrizitate saioak norberaren gorputza modu positiboan bizitzeko oinarriak eskaintzen ditu, sormena eta pentsamenduaren bidea irekiz.



**Ixiar Lekuona**  
HHko ikasketaburua



## Haurren egozentrismoa

Harremanak lantzea eta elkarbizitza orekatua lortzea dira 3-6 urte bitarteko haurren garapenaren adierazgarri nagusiak. 3-4 urte bete arte haurrak bere ikuspegitik soilik ulertzen du mundua eta ez da gai ondokoaren ikusmoldea ulertzeko. Fase horri 'haurren egozentrismoa' deitzen zaio.

Ikastolako geletan etengabe begiratzen ditugu haurren arteko harremanak eta ikusten dugu nola, poliki-poliki, elkar bilatzen hasten diren. Haur batek ondokoarekin jolasteko nahia adieraziko du, baina 3 urteko gelan, harreman hori ez da kooperaziozkoa izango. Haurrak bere ikusmoldea lehenetsiko du eta lagunak berak nahi duena egitea nahi izango du. Hizkuntzaren ulermena eta adierazmena garatzen joan ahala, 4 bat urterekin hasten da haurra benetan sozializatzen eta ondokoaren ikusmoldeak ulertzen.

Haurren arteko harremanetan ez ezik, jolasteko moduan ere aldaketa handiak izaten dira. 4 bat urte bete arte haurrak ez ditu jolasen arauak ezagutzen eta, parte-hartzea eta ongi pasatzea dira bilatzen dituenak. Haurrak ez ditu bere ekintzen ondorioak neurtzen eta, horregatik, maiz ikusten ditugu haurrak korrika doazela elkarrekin talka egin eta ezer pasa ez balitz bezala aurrera jarraitzen. Garatzen joan ahala, jolas sinbolikoetatik rolen jolasetara pasatzen dira eta taldeka elkartzen ikusten ditugu. Rol jolasetan haur bakoitzak pertsonaia baten paperean sartzen da.

Jolasak, jarrerak, hizkuntza, marrazkiak, irudimena... Haur Hezkuntzako 3 urteetan zehar haurrak garapen handia bizitzen du. Irakasleok gelan eta gurasoek etxean ikusten dugu garapena. Haurrak etorkizunerako oinarri sendoak izan ditzan, helduon zeregina da, elkarlanean, haurren beharren eta erritmoetara egokituz, bere bidean laguntzea.



## HAUR HEZKUNTZA 1

# Ikastola ingurua ezagutzen



Lau hilabete da ikastolara etortzen hasi ginela eta bertako txoko desberdinak ezagutzen ari gara: gela berriak, psikomotrizitate gela, jantokia, siesta txokoa... Eguraldia lagun izan dugun egunetan parkean jolastu eta gozatzeko aukera handia izan dugu lagun zahar eta berriekin.

HH1ko ikasleak

**HAUR HEZKUNTZA 2**

# Ohitura zaharrak berreskuratzen



San Martin eguna zetorrela eta, Oiartzungo ohitura zaharrari buruz hizketan aritu gara.

Garai batean azaroak 11ren inguruan, eguraldia hozten hasten zenean, Oiartzungo baserrietan txerria hiltzeko ohitura zegoen. Horrela, baserritarrek negurako janaria ziurtatzen zuten. Hildako txerria oso-osorik aprobetxatzen zen, jaki gozo askiak lortzen ziren horrela. Alde batetik, saiheskiak, solomoa, odolkia...; eta bestetik, hainbeste gustatzen zaigun urdaiazpikoa eta txorizoa!

Txerriaren hilketan, inguruko baserritarrek ere,

laguntzen zuten. Hala, egindako lanaren truke txermonia

ematen zitzairen. Eta, badakizue zer den txermonia?

Ba, txerria hil, eta, puskatu ondoren, inguruko baserrietara

txerriaren puska batzuk eramateko ohitura zegoen.

Banatzen ziren puska horiei deitzen zaie txermonia.

Guk txerri-hilketarik ez dugu egin, baina, ederki ospatu dugu

San Martin eguna. Ummm! Zein goxoak zeuden urdaiazpiko,

txorizo eta odolkiak.



HH2ko ikasleak

**HAUR HEZKUNTZA 3**

# Udazkenaz gozatzen



Urtaro emankorra da udazkena, aldaketa asko gertatzen dira gure basoetan eta horiek gertutik bizitzeko aukera izan dugu. Zuhaitzetako hosto koloretsuek jolasteko aukera emateaz gain, lehortze prozesua ikasi eta artelan ederrak egin ditugu.

Garaiko fruituak ezagutu ditugu: perretxikoak, gaztainak, sagarrak... Eta ikasitako guztiarekin etxekoentzat erakusketa antolatu dugu.

Gaiarekin amaitzeko Egiluze sagardotegian, sagardoaren prozesua gertutik ezagutzeko aukera izan dugu, baita zizarra dastatzeko ere.

Udazkenaz gozatzeko aukera ederra izan dugu!!!



HH3ko ikasleak



**Izko Lekuona**  
LHko ikasketaburua

## LEHEN HEZKUNTZA 1

# Denbora makinak



LH 1 mailakoek denbora makinak prest ditugu.

Japoniara, Egiptora, Eskoziara, Txinara joan nahi dugu.

Gure lehen bidaia egin dugu.

Luberri museora joan gara.

Dinosauroen aztarnak ikustera joan gara.

Oiartzuarrak sarrera dohainik dugu.

Ziur itzuliko garela.

LHko ikasleak



## Sozializazioa, norbanakotik taldera

Haur guztiak desberdinak izan arren, badira zenbait ezaugarri orokor 6-12 urte bitarteko adin tartean. Hala nola, **sozializazioa** edo **norbanakotik taldera** igarotzeko prozesua.

6 eta 12 urte bitartean, umeek euren "ni" propioa garatzen jarraitzen dute. Horretaz gain, aldaketa nabarmenak ematen dituzte euren buruez egiten duten balorazioan, hots, norberaren kontzeptuan eta autoestimuan.

- 6 eta 8 urterekin, norberaren eta besteentzako **konparazio gehiago egiten dituzte** ("orain ez zait gustatzen harri paketa jolastea, nire lagunari adina") eta alderdi psikologikoagoak esploratzen dituzte ("oso triste jartzen naiz lagunak ez badira nirekin jolastera etortzen").
- 8 eta 12 urterekin, norberaren kontzeptuaren **alderdi soziala areagotu egiten da**, eta pertsonen arteko harremanak nabarmentzen dira.

Autoestimuari dagokionez, bi dimentsio aipa daitezke: **autoestimua itxura fisikoa**ri dagokionez eta **autoestimua gaitasunari** (akademikoa eta soziala) edo **trebetasun fisiko**ei dagokienez. Kontuan izan behar da 6 urteko haurrek guraso eta hezitzaileekin duten harreman afektiboa oso garrantzitsua dela. Adin horretan, helduek esaten dutena hitzez hitz sinesteko joera dute eta, horregatik, haurren huts egite bat dela eta heldu batek esaten badu "ume hau tontoa da", umearengan ezintasun-sentimenduak sor ditzake.

Gainera, 6 eta 12 urte bitarteko umeak ingurukoekin dituzten harremanei buruzko zenbait alderdi zehazten hasten dira. Adibidez, jada ez dira lagunak elkarrekin jolasten direlako, baizik eta sentimenduak konpartitzen dituztelako eta elkarrenganako konfiantza dagoelako. Harreman horiek eraikitzerakoan oso garrantzitsua da haurren autoestimua sendoa izatea.

Aurrerantzean, haurrak lagun-taldean sartzeko izango du helburu nagusi, eta horretarako, familiarengandik aldentzen hasiko da; independentziaren zeinua da hori.

## LEHEN HEZKUNTZA 2

# Asmakizuna

2. mailan LH1eko lanbete jarraituz Erdi Aroa landu dugu eta horrekin batera Oiartzum. Beste gauza askorekin batera, gure herriko pertsonaia asko eragutu ditugu. Ea asmatzen dituzuen zein pertsonari buruz den hemen beheko informazioa hau:

Gure pertsonaia apaiza izan zen. Euskaltzain izendatu zuten Euzkaren inguruan ikerketa aska egin zuelako. Bere ikerlanak bertsoak eta poesiaren inguruan izan ziren bereziki.

O \_ \_ \_ M \_ \_ \_ E \_ \_ \_ K \_ \_ \_ A



### LEHEN HEZKUNTZA 3

## Gure oiartzuar kuttunak



3.mailari hasiera emateko Oiartzun, gure herria, landu dugu Txanelan. Auzo bakoitzeko ezaugarriak lantzeaz gain, Oiartzungo hiru musikari ikastolara gonbidatu ditugu eta une ederrak pasa ditugu beraiekin. Urriaren 19an Mainer Zabalegi musikaria eta abeslaria izan genuen gurekin. Musika munduan nola hasi zen azaldu ondoren, bere abestiak entzun eta berarekin batera abesteko aukera izan genuen. Gainera, musikako saioetan ikasitako dantza dantzatu genion eta oso gustura pasa genuen arratsaldea elkarrekin.



Urriaren 24an, berriz, Juanito Arozena eta Aitor Arozena musikariak izan genituen gurekin. Goizean goiz areto nagusian bildu eta txistua joaz kalejiran sartu ziren biak. Uxue Arozenak eta Amaia Cardonak elkarriketatu zituzten Arozenatarrak eta beren kontakizunak gustura entzun genituen. Ondoren, polka baten doinua aurkeztu zuen Aitorrek eta gu guztiok gogo biziz parte hartu genuen. Azkenik, Txulalari dantzatu genuen eta kalejirarekin bisitari bukaera eman genion.



LH3ko ikasleak



TXINPART 66

### LEHEN HEZKUNTZA 4



Aurtengo ikasturtearen hasierak indar berezia izan du: Haurtzaro Ikastolaren 50. Urteurrena. Hori dela eta ospakizun ugari begi bistan: kalejirak, kankak, dantza, marrazki, omenaldi, bazkari, argazki erakusketa, eta abar luze-luzea. Gure eskualdea ere ezagutu dugu: osaketa, mapak, eraikuntzak, pertsonaia ospetsuak, historia... Eta osatzen duten herrietatik ibilaldi polita eginez bukatu dugu.

Baina ezin ahaztu irailaren 27, 28 eta 29an Alozeko ikasleak gurekin egon zirela. Talde txikia zen eta adinari dagokionez, anitza. Jantoki gaina izan zen beraien kanpalekua. Eta egun oso bat elkarrekin igaro genuen, geletan elkartu eta udazkeneko ibilaldia eginez hasi. Altzibar, Gaztaño, Treku, Arpide, Aldakoko txakolindegitik barrena, Urkabera. Han hamaietakoa eta gaztain-bilketa. Denentzako bazegoen. Eguerdiko Urkabeko gurutzera elkarrekin bazkaltzera eta basoan jolastera. Arratsaldean, plazara jaitsi eta jolasak ludoteka inguruan. Ilunabarrean, denok elkarrekin afaldu genuen. Eta bukatzeko, bertso hau eskaini ziguten:

Eskertu nahi zutuegu  
Bakantza horietako  
Bost izarreko ikastola  
Ez sekula ahatzeko.

Urkabeko bidean  
Gaztainak dutugu bildu  
Eta arraiastean  
Jokuak egin dutugu

Plazer handia izan da  
Oiartzun bisitatzea  
Ez dugu ahatzeko  
Zoin eder den ziren etxea.

Eta ikasturte bukaeran **GU**  
egongo gara **ZUBEROAN!**

LH4ko ikasleak

## LEHEN HEZKUNTZA 5

# Etxalar ezagutuz



Eguraldia lagun genuela, Euskal Herria ezagutzeko eta harremanak estutzeko ibilaldia antolatu genuen 5.mailakook.

Autobusez joan ginen Nafarroatik barrena Etxalarrera. Iristerakoan, ingurune guztia berdea zen: zelaiak, zuhaitzak, loreak... Baserri asko zeuden eta baserri batean zizarra egiten ikusi genuen eta probatu ere egin genuen!

Lehenik, sagarrak sailkatu zituzten. Ondoren, garbitu eta xehetzeko makina batean sartzen zituzten eta horrela sagar zizarra (sagar zukua) sortzen zen. Horrez gain, baserri horretan aspaldiko tresnen erakusketa ikusi genuen.

Egun bikaina pasa genuen!

LH5ko ikasleak



## LEHEN HEZKUNTZA 6

# Eltzez betetako elkartasuna



laz, LH 5. mailan, Txanelako 3. unitatearekin batera ilusioz betetako egitasmo bati heldu genion. Baita heldu ere!

Unitatearen izena "Ez daukanak ongi ohi daki zer den edukitzea" da eta, bertan, herrialdeen arteko desberdintasunak jorratzen dira: herrialde pobreak eta aberatsak, desberdintasun sozialak, bizi itxaropenak eta abar luuuuze bat. Proiektuaren bukaerarako guk zertan lagun genezakeen pentsatzeko eskatu ziguten irakasleek. Taldetxo bakoitzak bere proposamenak egin zituen eta, bakoitza aztertu ondoren, guztien artean mailako bilera batean honako hau erabaki genuen: Oiarzungo El Watan elkarteari esku bat bota geniezaiokeela.

Esan eta egin. E-postaz jarri ginen harremanetan El Wataneko kideekin eta hitzordua egin genuen ikastolara etorri eta, Sahararren egoera esplikatu ondoren, zertan lagun geniezaiekeen proposatzeko. Proposamena erronka gisa hartu genuen eta ez zen gutxiagorako: uda gurekin pasatzera etorriko ziren ume bakoitzarentzat (bost) preziozko eltze azkar bat lortzea, alajaina.

Horiek guztiak lortzeko bakoitzak bere esfortzua jarri beharko genuen, gurasoei dirua eskatzea ez baitzen kontua. Eltzeak edota beraiek erosteko dirua lortzeko zer egin genezakeen eztabaidatu ondoren, bide desberdinak zabaldu zitzaizkigun: asteroko paga jasotzetik hasi, inguruko artean behar ez zituzten eltzeak jasotzetik jarraitu eta eskulanak egin eta saltzerainokoak. Bakoitzak bere bidea jorratu genuen (bakarka edo taldetxoka) eta, azkenik, hor dago lortutakoa: Ez bat ez bi eta ezta lau ere: hamabost eltze, alajaina!

Honekin guztiarekin, eltzeak lortzeaz gain, sahararren egoeraren berri izan eta gure inguruan zabaldu dugu, guk baino behar handiagoa dutenen alde lan egin dugu, talde lanean erronka handi bati aurre egin diogu eta, emaitza ikusita, gure buruarekin oso harro sentitu gara.

LH6ko ikasleak

DBH 1

# Matematika txokoak



Donostia 2016 kultura hiriburutzarekin lotuta, Matematika Txokoak antolatutako proiektuan parte hartu du Haurtzaro Ikastolak. Matematika Tailerrean dauden DBH1eko ikasleak kuboak eraikitzen aritu dira, Sierpinskiren kuboaren izena duen fraktala osatzeko asmoz. DBH1eko gainontzeko ikasleek ere lagundu diete tarteka.

Proiektu honek bi helburu izan ditu: alde batetik, ikasleek fraktalen mundua ezagutu eta horrekin ikasitakoa DBH3ko ikasleei aurkeztea, haiek landu dituzten edukiekin uztartzeko. Bestetik, Gipuzkoa, Bizkaia eta Nafarroako beste ikastetxe batzuekin batera Sierpinskiren kubo erraldoi bat eraikitzea. Horretarako, ikasleak Donostiako Kutxa Kultur Zentroan izan ziren azaroaren 24an. Ikastetxe bakoitzak bere proiektua eta esperientzia partekatzeko aukera ere izan zuen.”



DBH 2

# Instrumentuak eraikitzen



**INSTRUMENTUA:** Kontxata

**MULTZOA:** Kordofonoa

**MATERIALAK:**  
Kontraxapatua  
Kartoi lodia  
Egurra

Torlojua

Pita haria

**TRESNAK:**

Talogitea - Zerra mekanikoa - Mailua - Lixak - Guraizeak - Tenperak - Kuterra - Taladroa Arkatza - Erregelak - Silikona - Pintzela - Torloju bereziak - Pita (soka moduan)

**PAUSOAK:**

Hasteko kontraxapatuaren eta kartoiaren neurriak hartu eta markak egin genituen. Ondoren, zerra mekaniko baten laguntzaz pieza guztiak moztu eta soinua ateratzeko bi zuloak ere moztu genituen. Jarraian kola erabili genuen moztu genituen pieza guztiak itsasteko eta silikonaren laguntzaz, iskinak elkartzen bukatu genuen. Hori egin eta gero, margotu egin genuen tenperak erabiliz, ahalik eta erakargarriena eginez. Azkenik, taladradoaren laguntzaz, torlojuak sartzeko zuloak egin genituen eta bukatzeko pita haria sartu genion.

## Bidasoaren jaitsiera




DBH4. mailako ikasleak urria hasieran piraguaz Bidasoako jaitsiera egitera joan ginen. Egun erdiko ibilaldia izan zen. Goizeko zortzietan ikastolako aparkalekuan autobusa hartu eta Irunen dagoen Santiagotarrak elkartera joan ginen. Han, motxilak utzi eta beharrezko materiala eman ziguten. Autobusa hartu eta Endarlatzara joan ginen ibilbidearen hasierara. Bertan, piraguaz ibiltzeko argibideak eman zizkiguten eta Bidasoako ibaia jaisteari ekin genion. Ibilbideak 3 ordu iraun zituen. Piraguan entrenatzen duten lekuetatik ibili ginen eta bertan bainatzeko aukera ere eman ziguten. Santiagotarrak elkartera iritsi ginenean bertan dutxatu, hamaiketako jan eta autobusa hartuz ikastolara buelta egin genuen.

DBH4koen iritziz, ibilaldi hau egitea beharrezkoa da. Gure arteko harremanak sendotzeko baliagarria da eta gainera, kirola eginez ongi pasatzen da eta asko disfrutatzen da.

## ROSALIND FRANKLIN

1920eko uztailaren 25ean jaio zen Ingalaterran, eta 1958eko apirilaren 16ean hil zen. biofisikaria eta kristalografialaria izan zen. DNA molekula, birus, ikatz eta grafitoaren egituren inguruan ekarpen garrantzitsuak egin zituen. Hala ere, X izpien difrakzio bidez DNAREN lehen irudiak lortu izanagatik egin zen ezagun.



King's College erakunde sexistatzat hartu izan da eta askotan aipatzen da Franklin baztertua izan zela bertan emakumea izateagatik. Honen adibide bat, bertan lan egiten zuten gizonen jangela handi eta eroso bat zuten bitartean, emakumeek ikasleen jangela edo lantokitik kanpo bazkaldu behar zutela da.

## Emakume zientzialariak

2015-2016 ikasturtearen amaieran aurten DBH 4. mailan dauden ikasleak **Emakume zientzialariak** izeneko proiektuan murgildu ziren. Proiektuaren helburu nagusia historian zehar emakumeek zientziari egin dioten ekarpena azalratzea eta besteei ezagutaraztea izan zen. Izan ere, emakume horiei ezkutuan aritzea egokitu zitzaizen askotan eta haien lanaren aitortza oso berandu heldu da. Oraindik ere, zientziari emakumeen aurpegia jartzea zaila egiten zaigu maiz; eta, gaur egun makina bat ari dira medikuntzan, fisikan, kimikan, ekonomian, biologian, matematikan eta bestelako jakintza gaietan lan garrantzitsuak egiten.

Garai berean Hipatiaren lorategia zabaldu zen herrian, hori ere ikastolako ekimenaren ondorioz. Bi proiektuen lokera aprobeztatuz, hasieran jarritako helburua ederki bete zuten ikasleek. Lan guztien erakusgarri, Maialen Etxebestek egindakoa da honako hau.

# Te fuiste, sin irte para siempre

## June Galardi

Tú te fuiste, y yo me quedé sola,  
me quedé sin saber qué hacer,  
con la mirada baja,  
no veía nada, solo negro,  
me caían lágrimas oxidadas por los mofletes,  
un mar caía de mis ojos,  
tenía un moratón en el corazón,  
y una herida que jamás se cerrará.

Se dice que el tiempo todo lo cura,  
pero el vacío que has dejado tu,  
nadie lo va a rellenar.  
Ahora quien va a reír de mis tonterías,  
quien va a llorar conmigo,  
quien me va enseñar de la vida?

Tendré que aprender sola,  
la vida nos enseña,  
de la vida se aprende a sufrir,  
porque no hay mejor escuela que la vida,  
en ella aprendemos a llorar,  
a reír,  
a disfrutar,  
a elegir,  
pero sobre todo cómo vivir.

La vida no es fácil,  
es dura, no tiene sentido,  
si lo que más queremos se nos va,  
nacemos para morir,  
vivimos para morir,  
lloramos para morir,  
sufrimos para morir.



Desde que te fuiste,  
ando perdida,  
ando desorientada,  
no sé a donde mirar,  
no sé a donde ir,  
pero sé que algún día,  
volveré a verte,  
la esperanza no la he perdido,  
porque es lo último que se pierde.

Cuando te vuelva a ver,  
saltare a tus brazos,  
como siempre lo hacía,  
como una niña loca,  
yo era la niña de tus ojos,  
y tu mi abuelo,  
mi apoyo,  
mi norte.  
Tu me protegías,  
me ayudabas,  
y me aconsejabas.

Cuando estabas aquí te quería,  
ahora que no estás,  
te sigo queriendo,  
y siempre voy a quererte.

Ahora voy a cerrar los ojos,  
voy a irme de este mundo,  
a mi mundo,  
a un mundo de colores,  
a un mundo sin sufrimientos,  
a un mundo de risas  
a un mundo perfecto,  
a un mundo sin muerte,  
pero sobre todo a un mundo que estés tú.

# Zientzialariek in solasean



Donostia International Physics Centerrek (DIPC) antolatutako **top@DIPC - Zientzialariek in solasean** jardunaldietako V. edizioan ikasle gazteok punta-puntako zientzialariek in hitz egiteko aukera izan dugu, baita Nobel saridun batekin ere. Eta haiei guztiei geure zalantzak azaldu eta galderak egin ahal izan dizkiegu zuzenean.

Gure ikastolatik DBH4. Mailako ikasle hauek izan dute aukera paregabe hau: Miren Irigorri, June Gorostidi, Eki Mendibil, Maialen Etxebeste eta Ander Etxegarai.

"Interesgarria iruditu zaigu topaketa hau. Eta nahiz eta oso zailak ziren esplikatu beharreko kontzeptuak, saiatu dira guk ulertzeko moduan hitz egiten. Zientzia erakargarria dela esan digute eta gu animatzen saiatu dira zientzialariak izateko." Bestalde, taldean lan egitea oso garrantzitsua dela adierazi digute eta nahiz oso pertsonaia garrantzitsuak eta ospetsuak izan, oso gertukoak azaldu zaizkigu.

Hauek izan dira gurekin solasean aritu diren zientzialariak:

**Pedro Migel Etxenike** izan da moderatzailea: Isaban jaioa eta ikerlari ospetsua, 1998an Max Planck saria jaso zuen (Fisika) eta urte berean **Principe de Asturias saria jasotakoa**. Gaur egun Euskal Herriko Unibertsitateko katedraduna da. (UPV/EHU) eta Donostia International Physics Center (DIPC) eko lehendakaria.

Berak aurkeztu dizkigu beste ikerlariak:

### Dudley HERSCHBACH

**Fisika-Kimika doktorea. Harvard University, AEB**  
Kimikako Nobel Saria jaso zuen, oinarritzko prozesu kimikoen dinamikaren inguruan eginiko ekarpenengatik.

### Elena CATTANEO

**Biologia. Università degli Studi di Milano, Italia**  
Cattaneoren laborategiko ikerketagai nagusia Huntingtonen gaixotasunaren (HD) patofisiologia molekularra da.

### Pamela DIGGLE

**Department of Ecology & Evolutionary Biology University of Connecticut.** Diggleren ikerketa landareen garapenean zentratzen da: garapen prozesuan jasandako aldaketek forma berriak nola sortzen dituzten, eta garapen prozesuak nola eragingo dion landareek klima-aldaketaren aurrean emandako erantzunari aztertzen ditu.







**Pili Lizaso**  
DBHko ikasketaburua

## Sozializazioa, norbanakotik taldera

Nerabezaroak bizitzako garairik onena beharko luke. Funtzio gehienak, hala fisikoak, nola psikologikoak, onenean daude: indarra, erreflexuak, lastertasuna, oroimena, etab. Gure gorputzaz eta mugimenduz gehien gozaten dugun garaia da, elikagaiak zapore onena dutena, usainak sakonenak direna, musika ederrena eta maitasuna inoizko errealena.

Garai ederra izateak, ordea, ez du esan nahi garai erraza denik eta gure gizartean, nerabezaroa "garai txarra" bezala definitzen da. Nerabezaroak ospe txarra du eta horren erakusle dira nerabezaroari buruz liburutegietan aurki daitezkeen hainbat eta hainbat 'gida-liburu'. Iritz horri aurrea hartuz, Marina Rodríguez de Castro y Lorente-k (2015) Nerabezaroaren Paradigma Berria proposatzen du eta nerabezaroa "garai txarra" ez, baizik "aukera handien garaia" deitzea proposatzen du.


Paradigma berriak ezaugarri hauek azpimarratzen ditu:

- Nerabezaroaren funtzio biologiko eta soziala ikastea da. Nerabearen garuna heltzen eta garatzen da gero eta lasterrago ikasteko eta nerabeen gaitasun kognitiboak perfektzionatzen dira.
- Garrantzitsua da nerabearengan ditugun itxaropenak handitzea (konfiantza eta esijentzia), hartara gazte bakoitzaren ikasteko potentzialtasunari zuku gehien ateratzeko.
- Hezkuntzaren zeregina nerabearen talentua sustatzea izan behar du.
- Nerabearen talentua garatzeko erabiltzen diren programek nerabearen ahalduzkoa sustatu behar dute: bere gaitasunak muturrera eraman autonomia lor dezan.

Nerabezaroan ideia berriak ere sortzen dira. Arteak eta sinesmenek gure oroimenean duten eragina inoizko handiena da. Gure idazkera pertsonalizatu egiten da, eta horregatik da garrantzitsua Haurtzaro Ikastolarentzat prosa eta poesia lehiaketan parte hartzea, adibidez.

Nire iritziz, nerabezaroaren ezaugarri nagusiak nortasuna garatzea eta ikasteko gaitasun asegaitza dira. Ikuspegi kognitibotik, DBHko lau urteetan gazteek ematen duten saltoa ikusgarria da; pentsaera abstraktua erabiltzen hasten dira, autonomia handiagoa dute eta beren ingurunea hobeto ulertzen dute. Horretan guztian, irakaslearen eta gurasoen zeregina ikaslearen bidelagun izatea eta konfiantza ematea da, bere garapenean aurrera egin dezan eta, ustez, garai "txarra" dena aukeren garai ahaztezina izan dadin.

## Pio Barojari buruzko solasaldia



**Jokin Irastorza**

Urriaren 31n, Oiartzo ikastolako ikasleek Pio Baroja idazlearen bizimodua eta literaturari hark egindako ekarpen anitzak gertutik ezagutzeko aukera izan zuten beste urtebetez, bere ikertzailerik sutsuenetakoa den Félix Marañaren eskutik.

Bigarren jolas-orduaren amaiera aldera (12:45) areto nagusian elkartu ziren bigarren mailako ikasleak, zenbait irakasleekin batera azalpenak aditzera. Giro bikainean bi orduko solasaldia izan zuten idazleak eta bertarutakoek, entzuleen parte-hartzearekin, ateraldi umoretsuekin.

Barojaren familiakideei buruz aritu ondoren, eta bere inguruko daturik esanguratsuenak aipatu ondoren (Donostian jaio zela 1872an eta Madrilen hil 1956an, medikuntza ikasi eta mediku izan zela epe labur batez, idazle emankorra izan zela eta bere obrak kutsu autobiografiko handia duela, izaera berezikoa zela...), utzitako ondarean sakondu zuen Marañak, behin eta berriz azpimarratuz Barojaren garrantzi literarioa.

Pasadizo eta baliabide grafikoak erabiliz aberastutako hizketaldian, Donostiak eman dion tratua gaitzetsi nahi izan zuen, zenbait kritika zorrotz tartekatuz bere diskurtsoan.

Saio monografikoaren amaiera aldera, poesia errexitatu zuen entzuleetako batek, bertaratuak atmosfera liriko batean murgilduz. Azkenik, askotariko galderak egiteko aukera izan zen, irakurketari eta Pio Barojaren irudiari buruzkoak, gehienbat.

# Haurtzaro Mendi Taldeak ikasturte osorako sei proposamen ezberdin

Oiartzungo paraje sekretuak ezagutzeko parada Haurtzaro Mendi Taldearekin



**Ikasturte osoko egitarau oparoa prest dauka Haurtzaro Mendi Taldeak**



**Ikasturte berriari hasiera** emanaz, Haurtzaro Mendi Taldeak aurkeztu du ikasturte honetarako proposamen oparoa. Denera sei ibilaldi egingo dituzte Ikastolako mendizaleek, **azaroaren 20an** hasita.

Lehen irteeran, Oiartzungo parajeak ezagutzen ibili ziren. Mendi buelta egin ondoren, Negu jaia ospatu zuten, Karrikako Artaso elkartearen. Mahaiaren bueltan kontu-kontari ibili ziren goizean gozatutako ibilaldiaz, besteak beste.

Bigarren irteera, urtero legez, eskiatzera joatea izango da. **Urtarrilaren 21 eta 22an** iraupen eskiko ikastaroa egingo dute ikastolako ikasle eta gurasoek, Somport inguruan (Aragoiko Aspe bailaran). Handik gertu hartuko dute ostatu, Candanchuko aterpe batean.

**Maiatzean, rafting Bidarrain** Hirugarren txangoa otsailean izango da, **otsailaren 26an**. Gertuko mendiak ezagutzeko dituzte orduan. Etxeko bazterrek ere aski politak izaki, Oiartzungo txokoren bat bisitatuko dute.

Eta udaberriarekin batera, aste bukaerako irteera egingo dute. Beintza-Labaien ingurua ezagutzeko dute **martxoaren 25 eta 26an** Haurtzaroko mendizaleek. Paraje hau Nafarroa Garaiko iparraldean dago, Malerreka eskualdean. Iruñeko merindean, hain zuzen.

**Maiatzaren 7an** izango da bosgarren irteera, Bidarra aldera. Iparraldean kokatzen den herri horretan ikasleek hainbeste estimatzen duten rafting jaitsiera egingo dute, Errobi ibaian barrena. Ordu eta erdiko jaitsieran, primerako esperientzia izaten da animatzen diren partaideentzat.

**Ginkana mundiala, ekainean** Eta ikasturte amaierarako geratzen da esperientziarik ederrena: Ikastolaren eguneko ginkana mundiala. Arrakasta handien duen proposamena (250 ikasle parte hartzen dute urtero) oso estimatua izaten da. Guraso talde bikaina aritzen da dena prestatzen eta ikasleek ederki gozaten dute. Tirolina, Oiartzun ibaiaren jaitsiera (Altzibar-Iturriotz bitarteko tartea), bizikletan txangoa, fitxen karrera, zaku-karrera, txikorta-jokoa... Aukera gaitza izaten dute lagunartean primeran pasatzeko.

Aspaldikoa dugu Haurtzaro ikastolako Mendi Taldea. 1994-95 ikasturtean egin zituen lehen urratsak, asteburuetan guraso eta ikasleei mendi bueltarako aukerak zabaltzeko asmoz. Urtero, garaian garaiko ibilaldiak antolatzen dituzte guraso dinamiko eta mendizale hauek. Hogeita bi urte, hortaz, Ikastolako ikasle nahiz gurasoei paraje ederrak ezagutzeko aukera eskaintzen.

# Gelatik kanpo ere ikasten

Ikasturte batetik bestera Haurtzaro Ikastolako eskolaz kanpoko ikasgaien eskaintza eta eskaera handituz doaz. 2016-2017 ikasturtean, 4-16 urte bitarteko 521 ikaslek eman dute izena saio horietan. Kultur eta kirol arloko ekintzetan, haurrek ongi pasatzeaz gain, haurrek autoestimua eta bizitzarako hainbat abilezia ere lantzen dituzte.

## Bizitzarako ikasgaiak

Eskolaz kanpoko ekintzak ikasgelatik kanpo eta modu informalean lantzen diren gaiak izanik, ezer baino lehen ongi pasatzeko uneak dira. Baina ongi pasatzeak ez du esan nahi ikasten ez denik. Alderantziz, pedagogoez diote ikasteko motibatuta ez ezik, haurrek emozioz egon behar duela, emozioz gaudeneko momentuak hobeto gogoratzen ditugulako.

Kultur eta kirol arloko 18 ekintza proposatzen ditu Haurtzaro Ikastolak, haur bakoitzak bere gogo eta gustuen arabera aukeratzeko, baina guztietan lantzen dira bizitzarako ezinbestekoak diren hainbat abilezia eta balore, honakoak besteak beste: jendaurrean komunikatzea, konpromisoa, sormena, psikomotritzitatea, antolaketa, trebetasun sozialak, iniziatiba hartzea, oreka, elkartzasuna, pazientzia, enpatia, entzuten jakitea, talde-lana eta herritartasuna. Horrez gain, eskolaz kanpoko ekintzak, haurren garapen osoan eta autoestimuan eragiten duten saioak ere badira.

## Begirale-talde tituluduna eta egonkorra

Eskolaz kanpoko ekintzak gidatzen 41 hezitzaile gazte ibiltzen dira. Alaitz Bergaretxe koordinatzailearen hitzetan "hezitzaile-taldea talde gaztea, iraunkorra eta tituluduna da. Egonkortasun horrek asko laguntzen du koordinazioan, baina garrantzitsuena ez da hori; garrantzitsuena da guztiak ilusio handiarekin egiten dutela lan, haurrek maite dituztela eta haurrentzat hurbileko erreferentzia direla. Ikasleak ere oso gustura dabilta eta horren adibide da ikasturtero partaide kopurua handituz doala."



## 2016-2017 ikasturteko eskaintza

### KULTURA ARLOKO EKINTZAK

25 hezitzaile

Jolas txokoan 5 talde.

Eskulanetan 10 talde.

Dantza garaikidean 8 talde.

Malabaretan talde 1.

Bertsolaritzan 2 talde.

Euskal dantzetan 9 talde.

Dantza txapelketan 7 partaide.

Musika taileretan 4 talde.

Abesbatzan 20 partaideko taldea.

Antzerkian 5 talde.

Trikitolari eta panderojole talde ederra.

Robotikan 2 talde.

### KIROL ARLOKO EKINTZAK

16 hezitzaile

Kenpon 2 talde.

Xakean 2 talde.

Eskola kirolean 16 talde.

Atletismoan 2 talde.

Gurpil gaineko irristaketan 2 talde.

# Ikastolako abesbatza Gogora Memoriaren Institutuaren urteurrenean

Haurtzaro Ikastolako abesbatzak Gogora Memoriaren Institutuaren urteurrenean abesteko gonbidapena jaso zuen. Azaroaren 10ean, Memoriaren Eguna ospatu zen Bilboko Doña Kasilda Parkean. Bertan, Hika Teatroak egindako emanaldi batean parte hartu zuen Haurtzaro Abesbatzak, Lartaun Abesbatzarekin, Oinkari Dantza Taldearekin, eta Ainara Ortega eta Juantxo Zeberio musikariekin batera.

Ikastolako abesbatza poliki-poliki handitzen doa. Emanaldi horretan parte hartu zuten ikasleak LH 4. mailatik LH 6. mailara bitarteko ikasleak izan ziren. Hala ere, abesbatzan, LH 1. mailatik LH 6. mailara bitarteko ikasleek parte hartzen dute eta, azken ikasturteetan, partaide kopurua gorantz doa.

## Hainbat emanaldi ikasturtean zehar

Astetik atera gelan edo saioetan ikasitakoa baloratzeko, egindako bideaz jabetzeko eta aurrera jarraitzeko gogoia eta ilusioa mantentzeko oso garrantzitsua da entsaioetan egiten dena jendaurrean agertzea. Haurrentzat oso bizipen garrantzitsuak dira, maiz oroitzapenetan geratzen diren horietakoak. Une horietan talde-lanaren balioa indartu egiten da, urduritasunak kontrolatzen ikasten da eta ongi egindako lanaren satisfakzioa handitzen da.


Ikasturte osoan zehar sortzen zaizkigun aukera guztiak baliatzen ditugu jendaurreko saioak egiteko, hala nola, herrian antolatzen diren jaiak, Ikastolak berak antolatzen dituenak, puntualki jasotzen ditugun gonbidapenak eta, astero-astero, Eskola Kiroleko jardunaldiak eta atletismoko frogak.

Ikasturteko unerik gogoangarrietakoak ekainean izaten dira. Ikasturte amaieran, udaletxeko pleno-aretoan antzerki-emanaldiak izaten dira eta Ikastolaren Egunean eskolaz kanpoko ekintza askoren erakustaldiak egiten dira.



Abesbatza Bilboko emanaldian parte hartzaile guztiekin batera. ↑

↓ Abesbatzako taldeak LH 4. mailatik LH 6. mailara bitarteko partaideak Bilboko emanaldian.



# Eskuttun, urtez urte euskararen alde



**Ilusio kutsakor bat sumatzen da** Eskuttuneko kideen artean. Artikulu hau idazterakoan Euskararen Nazioarteko Eguna prestatzeko zereginetan buru-belarri sartuta harrapatu ditugu, taldeka bilduak, urduri eta alai. Emozionatuta daude eta emozio hori urteetan zehar mantendu izan da.

## Eskuttunen lehen haziak duela 15 urte

Eskuttun talde sendo eta egonkorra da gaur egun, baina talde gehienak bezala poliki-poliki joan da forma hartzen. Lehen pausoak nola eman ziren Kristina Boan irakasleak azaldu digu: "2002an erabaki zuen Ikastolak Hizkuntza Proiektua egitasmoan parte hartzea. Hasiara hartan eremu ez-curricularreko ordezkari batek eta eremu curricularreko etapa bakoitzeko ordezkari banak osatu genuen taldea eta gure lehen egitekoa Hizkuntza Proiektua bera idaztea izan zen. Hizkuntza eremua nola antolatua dagoen arakatzan hasi ginen eta, berehala jabetu ginen beharrezkoa zela Hizkuntza Batzordea sortzea eta, bertan, gurasoak eta ikasleak ere egon behar zutela. Hala, Imanol Barreneite eta Arantza Gorostiaga guraso ordezkari izendatu ziren eta ikasle ordezkariak Beñat Badiola eta Goratz Gezala. Bi ikasle horiek euskal kultura hautazko ikasgaiaren lehen ordezkariak dira beste 13 ikaslerekin batera. Ikasle horiek burutu zituzten Hizkuntza Proiektua idazteko hainbat lan eta esan liteke beraiek izan zirela Eskuttunen hazia. Besteak beste, Ikastolako jolas-garaietan eta sarrera-irteeretan euskararen presentzia zenbatekoa zen neurtu zuten eta, datu horiek informatizatu eta ondorioak atera zituzten. Horrekin batera, aisialdi-eremuko hezitzaile guztiekin sentiberatze-saioak egin ziren, Ikastolako megafoniarako euskal kanten bildumak egin ziren eta **Txinpart** aldizkarirako euskarari buruzko lehen artikulua ere idatzi zuten.

Eskuttun, Haurtzaro Ikastolako euskara taldea, talde emankor eta bizia da. Gaur egun, DBHko 70 bat ikaslek hartzen dute parte bertan, euskara eta euskal kultura sustatzeko zereginetan.

Josune Saizar, Kristina Boan, Maider Lekuona, Donibane Azkarate eta Antton Kazabon, urtez urte, Eskuttunen dinamizatzaile lanetan ibili diren irakasleak.

↓ Eskuttun-eko kideak, kide-ohi batzuekin eta irakasle dinamizatzaile batzuekin.



Hori da, nolabait, Eskuttunen hazia, taldea bi urte beranduago sortu bazen ere. Taldea formalizatzeo ideia Arabako ikastoletako **Xaxatu** euskara taldetik ekarri genuen."

Idea bazegoen, taldea ere bai eta nortasuna jarri behar zitzaion. Horretarako izena eta helburu batzuk jartzea falta zen. Antton Kazabonek kontatu digunez, "izena eta logoa sortzeko lehiaketa bana egin genuen ikasleen artean. Buzoiak jarri genituen pasilloetan eta ikasle batek sortu zuen "Eskuttun" izena. Zereginen artean jarri genituen, besteak beste, hiztun neurketak egitea, paisaia euskaratzea, kanpainak egitea... baina garrantzitsuenak da ikasleak inplikatzeko, protagonismoa ematea eta beraiek izatea esaldi desegokiak zuzendu eta euskararen erabilera bultzatuko dutenak."

## Ikasturte osoa lanean

Ikasleentzat oso talde erakargarria da Eskuttun, asko ikasteaz gain, oso ongi pasatzen dutelako. "Atera kontuak, ostiral arratsaldetan berez jai dute ikasleek eta 70 bat Ikastolan bertan geratzen dira talde honetan parte hartzeko" esan digu Donibane Azkaratek.

Gaur egun, Eskuttuneko ikasleek antolatzen dute abenduaren 3an Euskararen Nazioarteko Egunerako ospakizuna, oiartzuera sustatzeko kanpainak... Maider Lekuonaren hitzetan "euskararen alde lan egiteaz gain, talde lanean aritzen ikasten dute, jendaurrean hitz egiten, beraien iritziak defendatzen, bakoitzaren abileziak (marrazketa, antzerkia...) azaleratzen... Iruditzen zait balore horiek oso baliagarriak suertatuko zaizkiela bizitzarako eta guk ilusio handiarekin egiten dugu lan hau."

# Zorionak idazle gazteei!

LH3tik DBH4 bitarteko ikasle guztiek urtero hartzen dute parte Oiartzungo Udalak antolatzen duen prosa eta poesia lehiaketan. Ikasleak irudimena lantzen eta nortasuna garatzen ari diren garaia izanik, oso esanguratsua da ikasleek idazketa pertsonalizatzeko egiten duten lana. Bide horretan, garrantzitsua da ikasgelatik atera eta gure ikasleek euren lanak era honetako lehiaketetara aurkeztea.

Prosa eta poesia lehiaketa euskararen erabilera eta presentzia areagotzeko ekimena ere bada, eta zentzu horretan ere Haurtzaro Ikastolak bere ekarpena egiten du.

Zorionak, bada, saria jaso duzuen ikasleei, baita parte hartu duzuen ikasle guztiei ere egindako lan bikainagatik!

MAILA	PROSA	LANAREN IZENA	IZENA
LH3	<b>1. SAILA</b>		
	SARIA	Txiriren arazoa	<b>ILARGI ZIAURRITZ OLAZIREGI*</b>
	SARIA	Ipotxito txikia	<b>ARITZ OIARTZABAL GONZALEZ*</b>
LH4	<b>2. SAILA</b>		
	SARIA	Ni eta nire ahizpa	<b>IRAIA ZAPIRAIN OLASAGASTI*</b>
	SARIA	Eguzkiaren sekretua	<b>IRURI ETXEBESTE ESNAOLA*</b>
LH5-6	<b>3. SAILA</b>		
	SARIA	Zuhaitzaren sorrera	<b>LUR LOPEZ FRAILE*</b>
	SARIA	Planeta aspertuak	<b>ELAIA ERKIZIA ORTEGA*</b>
DBH1-2	<b>4. SAILA</b>		
	SARIA	Gernikatik ihesi	<b>MALEN FRANTSSENA ARNAIZ*</b>
	SARIA	Lukuko kaioak	KATTALIN IRIONDO GAZTELUMENDI
DBH3-4	<b>5. SAILA</b>		
	SARIA	Alabaren hotsa	<b>MALEN ELIZASU MANTEROLA*</b>
	SARIA	Ipurtagia	LUIX MITXELENA MITXELENA
16-18	<b>6. SAILA</b>		
	SARIA	Maitea	<b>MADDI PUI SORONDO*</b>
	SARIA	Begi beltzetan galdurik	<b>MADDI IBARGUREN ELOSEGI*</b>
MAILA	POESIA		IZENA
LH5-6	<b>3. SAILA</b>		
	SARIA	Olentzero	<b>IBAI SANZBERRO, GARAZI ELIZEGUI, MADDI GOENAGA*</b>
	SARIA	Sugea su hondoan	<b>UNAI EGUSKITZA MARTINEZ*</b>
DBH1-2	<b>4. SAILA</b>		
	SARIA	Ezezagun bat kobazuloan	<b>BEÑAT SUSPERREGI*</b>
	SARIA	denbora	<b>NAGORE ETURA MENDIZABAL*</b>
DBH3-4	<b>5. SAILA</b>		
	SARIA	Mundi txiki bat	<b>LAIENE ARANBURU GORROTXATEGI*</b>
	SARIA	Maitasun ubeldua	<b>JUNE GALARDI ZAPIRAIN*</b>
16-18	<b>6. SAILA</b>		
	SARIA	Minutu bat	<b>AMAIA CORTÉS CARRIZO*</b>
	SARIA	Barkatu	CARLA GARCÍA REQUENA

\* Haurtzaro Ikastolako ikasleak.

# Parekidetasunaren eta errespetuaren alde



Laura Pardavila eta Beñat Urdanpilletak egindako arte-lana

Azaroaren 25ean, Emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako eguna ospatu zen. Oiartzungo Antiju Morik talde feministak, herriko beste emakume taldeekin elkarlanean antolatuta, Haurtzaro Ikastolako DBHko ikasleen margolanekin erakusketa polita antolatu zen pleno aretoan.

Aste berean, DBH3. mailako ikasleek emakumeen kontrako tratu txarren inguruan mahai ingurua izan zuten, tratu txarrak pairatutako emakumezko baten eskutik.


Egunean bertan, gainera, jada tradizio bihurtzen ari den aldarrikapen argazkia atera zuten DBHko ikasleek euren iniziatibaz.

**Ikasleekin parekidetasuna, errespetua eta bizikidetzazko baloreak landu zituzten eta, beste behin ere, zur eta lur utzi gintuzten euren lanekin eta ekimenekin. Biba zuek!**



DBHko ikasleek emakumeen aurkako indarkeria salatzen ateratako argazkia

# Seittun ga Oiartzunen!



**50** Haurtzaro Ikastola  
bizitzarako hezkuntza

**Ford Easo Motor**  
FordFocus  
Salmenta + Tailerra + Txapatan + eskaintza hoberenak  
Lintzirin Poligonoa, 10 - 20180 OIARTZUN  
☎ 943 26 04 26 / 943 26 03 91

**egiar**  
902150404 943102055

**GEZAK S.C.**  
KIROLEDIETAKO KUDEAKETA  
GESTION INTEGRAL POLIDEPORTIBO

**ELORSORO KIROLDEGIA** • Elorriada, 24  
T: 943 492 552 • M: 629 161 852  
F: 943 493 951 • www.kiroldegiak.net  
2018ko OABIZI, N. I. OABIZI

# Pauso bat aurrerago

**50** Hartzaro Ikastola  
bizitzarako hezkuntza